



TOLOSAKO  
UDALA

2026MAZB0004

## TOLOSAKO UDALA IRAGARKIA

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA ANUNCIO

*2026ko ITSASKI azoka berezian  
postua jartzeko  
oinarriak eta deialdia*

*Bases reguladoras y convocatoria para la  
instalación de puestos en la feria  
ITSASKI de 2026*

Tolosako Udaleko Aitor Aguirresarobe Murgui zinegotzi delegatuak, bi mila eta hogeita zazpiko apirilaren 17ko 2026/1165 Dekretuaren bidez, ebazpen hau eman zuen:

El concejal delegado Aitor Aguirresarobe Murgui del Ayuntamiento de Tolosa, mediante Decreto 1165/2026, de 17 de abril de dos mil veintiséis, dictó la siguiente resolución:

**LEHENA.-** Itsaski azoka berezia antolatzea Tolosako San Frantzisko pasealekuan, 2026ko ekainaren 6an, eta bertan postua jartzeko aukera eskaintzea honako oinarri hauen arabera:

**PRIMERO.-** Organizar la feria Itsaski en San Frantzisko pasealekua de Tolosa el 6 de junio de 2026, en la que se ofrezca la posibilidad de colocar un puesto en base a las siguientes bases:

## ITSASKI

### ITSASKI ETA ARRAIN AZOKA

### FERIA DEL MARISCO Y DEL PESCADO

2026ko ekainaren 6an ITSASKI azoka izango da Tolosan. Postu horien esleipena honako oinarri hauen arabera egingo da:

El 6 de junio de 2026 se celebrará la feria ITSASKI en Tolosa. La adjudicación de estos puestos se realizará de acuerdo con las siguientes bases:

### **ITSASKI AZOKAN POSTUA JARTZEKO OINARRIAK**

**1. Xedea:** oinarri hauen helburua Tolosako ITSASKI azokaren antolaketa arautzea da, itsasoarekin, gastronomiarekin eta itsas kulturarekin zerikusia duten produktuak sustatu, erakutsi eta merkaturatzeko. Era berean, oinarri hauen helburua da ITSASKI azokan arrain-kontserben eta itsasotik eratorritako produktuen partaidetza eta salmenta-irizpideak arautzea, produktuaren kalitatea, elikagaien segurtasuna eta artisau-kontserben industriaren sustapena bermatzeko.

### **BASES PARA LA INSTALACIÓN DE PUESTOS EN LA FERIA ITSASKI**

**1. Objeto:** las presentes bases tienen por objeto regular la organización en la Feria ITSASKI de Tolosa, un evento destinado a la promoción, exhibición y comercialización de productos relacionados con el mar, la gastronomía y la cultura marítima. Así mismo, es objeto de estas bases regular la participación y los criterios de venta de conservas de pescado y productos derivados del mar en la feria ITSASKI, con el fin de garantizar la calidad del producto, la seguridad alimentaria y la promoción de la industria conservera artesanal.

ESKUB4393b87-272c-403e-a7a7-971b0a1cfcbb7



## 2. Azokaren ezaugarriak:

- **Data:** 2026ko ekainaren 6an.
- **Lekua:** San Frantzisko pasealekua.
- **Ordutegia eta muntaketa lanak:** postuak eta saldu beharreko produktuek 09:00etarako jarrita egon beharko dute, eta 16:00etarako jaso beharko dira. Ezin izango da 07:00ak baino lehen hasi muntaketa lanekin.

Postuak muntatzeko beharrezkoak diren elementu eta mahaiak Udalak jarriko ditu, eta norbaitek eskaera edo behar bereziren bat balu, eskaera orrian azaldu beharko luke; ondoren, Azoken arloak aztertuko luke.

## 3. Postuak: guztira, 8 postu jarriko dira.

Udalak, postuen banaketa egiterakoan, oinarri hauetan dauden postuak jartzeko baino leku gehiago edo gutxiago edukiko balu, postu-kopurua handituko edo gutxituko luke.

## 4. Baimen eskaera: honako hauek parte hartu ahal izango dute ITSASKI azokan:

- Arrantza- eta itsaski-sektoreko enpresak.
- Itsasoko produktuen ekoizleak eta merkaturatzaileak.
- Ardo zuri ekoizleak eta merkaturatzaileak.
- Itsas eremuari lotutako artisauek.
- Itsas eremuari lotutako erakundeak.

Antolatzaileek sarrera ukatzeko eskubidea dute, kontuan hartuta jarduera bat datorren edo ez ekitaldiaren gaiarekin.

## - Eskaerak aurkezteko tokia eta modua:

- a) Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:
- a. Aurrez aurre, UDATEn. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, osteguna izan ezik: 07:15-14:15. Ostegunetan: 07:15-19:00.
  - b. Erregistro elektronikoen bidez, [www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus) webgunera sartuta.
  - c. Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.

## 2. Características de la feria:

- **Fecha:** 6 de junio de 2026.
- **Lugar:** San Frantzisko pasealekua.
- **Horario y montaje:** los puestos y productos de venta deberán estar colocados a las 09:00 horas y recogerse para las 16:00 horas. No se podrán iniciar los montajes antes de las 07:00 horas.

Las mesas y elementos necesarios para el montaje de los puestos los suministrará el Ayuntamiento, y en el caso de que alguien tenga una demanda o necesidad especial, deberá indicarse en la hoja de solicitud, la que será estudiada por el área de Ferias.

## 3. Puestos: en total se instalarán 8 puestos.

Si el Ayuntamiento, al realizar la distribución de puestos, dispusiera de más o menos plazas que las que figuran en estas bases, aumentará o disminuirá el número de plazas.

## 4. Solicitud de autorización: podrán participar en la Feria ITSASKI:

- Empresas del sector pesquero y marisquero.
- Productores y comercializadores de productos del mar.
- Productores y comercializadores de vino blanco.
- Artesanos vinculadas al ámbito marítimo.
- Entidades vinculadas al ámbito marítimo.

La organización se reserva el derecho de admisión en función de la adecuación de la actividad a la temática del evento.

## - Lugar y modo de presentación de solicitudes:

- a) Las personas físicas podrán presentar solicitudes de las siguientes maneras:
- a. De forma presencial, en UDATE. Horario: de lunes a viernes, excepto los jueves: 07:15 - 14:15. Los jueves: 07:15 - 19:00.
  - b. A través del registro electrónico, en el sitio web [www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus).
  - c. En las oficinas de correos, en los términos que reglamentariamente se establecen.



d. Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.

d. En cualquier otro lugar que establezcan las disposiciones vigentes.

b) Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek, nahitaez, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dituzte eskabideak, bai eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere. Aurrez aurreko erregistrorako aukera pertsona fisikoek bakarrik izango dute.

b) Las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica propia deberán presentar las solicitudes, necesariamente, en el registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa, así como en los restantes registros electrónicos señalados en el artículo 2.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, admitiéndose el registro presencial exclusivamente para las personas físicas.

- **Eskaerak aurkezteko epea:** apirilaren 22tik maiatzaren 18ra (biak barne).

- **Plazo de presentación de solicitudes:** desde el 22 de abril hasta el 18 de mayo (ambos inclusive).

**5. Aurkeztu beharreko agiriak:** eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

**5. Documentación a presentar:** para realizar la solicitud, la persona interesada deberá presentar la siguiente documentación:

**- Pertsona fisikoaren kasuan:**

1. Eskabide orria.
2. Ordezkaritza agiria (hala badagokio).
3. Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, eskatzaileak Udalarik ofizioz kontsultatzeari uko egin dionean.
4. Tolosako udal-tasak eta eskubideak egunean izatea egiaztatzen duen agiria. Ofizioz kontsultatuko da.
5. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) agiria.
6. Elikagaien salmentarako:
  - 6.1. Osasun erregistroaren agiria.
  - 6.2. Elikagaien manipulaziorako txartela edo baliokidea (ontziratutako gabeko produktuen salmentaren kasuan).
7. Erantzukizun Zibileko Aseguruaren erreziboa eta poliza (gutxienez 150.000,00 eurokoa).
8. Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea izanez gero: bizileku- edo lan-baimena.
9. Erantzukizunpeko adierazpena, postuan dagoen pertsona ez bada eskatzailea, baizik eta haren soldatapeko langilea.

**- En el caso de las personas físicas:**

1. Impreso de solicitud.
2. Hoja de representación (en su caso).
3. Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social, cuando el/la solicitante se haya opuesto a la consulta de oficio por parte del ayuntamiento.
4. Acreditación de estar al corriente de las tasas y derechos municipales con el Ayuntamiento de Tolosa. Se consultará de oficio.
5. Documento correspondiente al Impuesto de Actividades Económicas (IAE).
6. Para la venta de alimentos:
  - 6.1. Documento de registro sanitario.
  - 6.2. Carnet de manipulador de alimentos o equivalente (en el caso de venta de productos a granel).
7. Recibo y póliza del Seguro de Responsabilidad Civil (mínimo 150.000,00 euros).
8. En el caso de ser persona extracomunitaria: permiso de residencia o trabajo.
9. Declaración responsable, en caso de que la persona que atiende el puesto no sea la solicitante, sino persona empleada de la misma.

**- Pertsona juridikoaren kasuan, gainera:**

**- En el caso de las personas jurídicas, también:**



- Enpresaren ordezkari agiria (eraketa eskriturak, karguen izendapenak, botereak...). Ondasun erkidegoen kasuan, erkidegoaren eraketa agiria.
- Documento de representación de la empresa (escrituras de constitución, nombramientos de cargos, poderes...). En el caso de comunidades de bienes, documento constitutivo de la comunidad.

#### **Postuan dagoen pertsonari dagokionez:**

- Elikagaiak manipulatzeko txartela edo baliokidea den ikastaroaren ziurtagiria, ontziratu gabeko produktuen salmenta kasuan.

#### **- Respecto a la persona que ocupe el puesto:**

- Carnet de manipulador de alimentos o en su defecto certificado del curso realizado, en caso de venta de productos a granel.

39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jarduleak dagoeneko bere esku dituen dokumentuak ez aurkezteko. Horrez gain, kontsultatu edo eskuratu egin ahal izango dituzte administrazio jarduleak jada bere esku dituen edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu.

En aplicación del artículo 28.2 de la Ley 39/2015 reconoce a los interesados el derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante, o a consultar o acceder a los documentos que ya se encuentren en su poder o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, salvo que el interesado se oponga a ello.

#### **6. Hautaketa irizpideak:**

Aurkeztutako eskaeren kopurua eskaintako postuena baino handiagoa bada, aurkeztutako eskaera guztien artean postuak zozketa bidez esleituko dira.

#### **6. Criterios de selección:**

Si el número de las solicitudes presentadas fuese superior al número de puestos indicado como máximo, se procederá a realizar sorteo entre los inscritos.

Postu guztiak betetzeko nahikoa eskari ez badago, epez kanpo aurkeztutako eskaerak onartuko dira, eskaerak zuzen eta beharrezko agiri guztiekin egiten badira. Kasu honetan, aurkeztutako hurrenkera hartuko da aintzakotzat.

En caso de no existir demanda suficiente para cubrir la totalidad de los puestos, se admitirán las solicitudes presentadas fuera de plazo, siempre que las solicitudes se formulen correctamente y con toda la documentación necesaria. En este caso, se tendrá en cuenta el orden de presentación.

#### **7. Eskaerak baloratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak:**

Eskaera orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe badago, hamar egun naturaleko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

#### **7. Órganos competentes para la valoración y resolución de las solicitudes:**

Si el impreso de solicitud o la documentación que debe acompañarla adoleciera de algún defecto o inexactitud, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días naturales, contados a partir del día siguiente al de la notificación, subsane los defectos observados.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren.

Transcurrido el plazo concedido sin haber procedido a la subsanación, se le entenderá por desistido/a de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución.

Azoketako arloak eskabideak baloratuko ditu, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Ondoren, proposamena zinegotzi delegatuari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

El área de Ferias valorará las solicitudes mediante el correspondiente informe técnico. Posteriormente se dará traslado de dicha



propuesta al concejal delegado para su resolución.

**8. Postuen kokapena:** Udalak erabakiko du postuaren kokapena, eta esleipenarekin batera jakinaraziko da.

**8. Ubicación de los puestos:** el Ayuntamiento decidirá la ubicación del puesto, la cual se comunicará con la adjudicación.

**9. Baldintzak eta betekizunak:** postua jartzeko baimena eskuratzeko, postua egokitu zaionak honako konpromiso eta betebeharrak hartuko ditu bere gain:

**9. Condiciones y requisitos:** la autorización para la instalación de los puestos objeto de estas bases se otorgará con el condicionado siguiente:

**- Baldintzak:**

**- Condiciones:**

- Baimena jasoz gero, titularrak pertsonalki jardun beharko du kasuan kasuko jardueran, bai zuzenean, bai behar bezala baimendutako enplegatu edo laguntzaileen bidez.
- Baimena aurtengo azokarako soilik izango da, eta ez du berritze automatikorako prozedurarik eragingo.
- Udalak edozein unetan egin ahal izango ditu eskatzen diren baldintzen eta zerga arloko zein Gizarte Segurantzarekiko betekizunen inguruko egiaztapenak. Egiaztatzen bada interesdunak ez dituela betetzen finkatu diren baldintzak, baimena bertan behera utzi ahal izango da.

- La autorización conlleva la obligación de su titular de ejercer la actividad de forma personal, directamente o a través de las personas empleadas o colaboradoras debidamente autorizadas.
- La autorización se limitará a la feria de este año, y en ningún caso dará lugar a un procedimiento de renovación automática.
- El Ayuntamiento posee la facultad de realizar comprobaciones en cualquier momento respecto a los requisitos exigidos y las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social. Si se comprueba que la persona interesada no cumple los requisitos establecidos, la autorización podrá ser revocada.

**- Betekizunak:**

**- Obligaciones:**

- Udalak salmentarako emandako udal-baimena eskuragarri izatea.
- Salmenta-prezioei, erreklamazio-orrrien antolaketari eta abarri buruzko informazio orokorra jendearentzako erraz ikusteko moduan azaltzea, baita norberak egindako produktuei, kalitate-markei eta abarri buruzko informazioa ere.
- Kokapenaren arabera antolatzaileek ezarritako saltokiak muntatzeko eta jasotzeko ordutegiak errespetatzea.
- Salmentarako kokagunea, okupatzeko baimendutako azalera, perimetroak eta lekuak errespetatzea. Kaleek bat egiten duten tokietan, oinezkoentzako pasaguneetan edo etxebizitza, denda

- Tener accesible la autorización municipal para la venta otorgada por el Ayuntamiento.
- Exponer la información general fácilmente visible respecto a: precios de venta al público, disposición de hojas de reclamaciones. así como la información sobre productos de elaboración propia, marcas de calida.
- Respetar los horarios de montaje y recogida establecidos por la organización en función de la ubicación.
- Respetar el emplazamiento, la superficie de ocupación autorizada, los perímetros y lugares para el ejercicio de la venta. No podrán, asimismo, situarse en las confluencias de calles, pasos de



edo ibilgailuentzat gordetako sarreretan ere ezingo dira jarri.

- Uneoro bere produktuen kalitatearen arduradun izango dira, ezingo dute arriskurik eragin kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako, ezta kalitate edo kantitate aldetiko iruzurrik ere, eta ezingo dira produktu faltsifikatuak edo identifikatu gabeak izan, ez eta merkatura ateratzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak ere.
- Postuan kartelen bat ipiniko balitz, edozein motatakoa izanda ere, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko du, kontuan hartuta zer zehazten duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, eta Tolosako Udaleko Euskararen Erabilerearen Normalkuntza Plana betez. Kartel horiek egiterakoan erabiliko diren mezuek errespetatu beharko dute emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako araudia, hizkuntza inklusibo ez-sexista erabiliz, Tolosako Udalaren Berdintasun Planak dioena errespetatuz.

**10. Ez-betetzeak:** zortzigarren artikuluan jasotako atalak betetzen ez badira, Udalak saltokia ezartzeko baimena kenduko dio arau-hausleari, eta ez dio 2027ko azoka berezian parte hartzen utziko.

**11. Erantzukizuna:** erakunde antolatzailea ez da honako hauen erantzule egingo:

- Parte-hartzaileen materialen kalteak, galerak edo lapurretak.
- Postua jartzen dutenek indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik jazotako gorabeherak.

**12. Interpretazioa:** saltokirako eskabidea aurkezteak arau hauek guztiak onartzea dakar. Arauak interpretatzerakoan zalantzarik izanez gero, Azoketako arloak ebatziko du.

**13. Oinarrien indargabetzea:** oinarri hauek indarrrik gabe geratuko dira baldin eta ITSASKI ezin bada halabeharrez egin, agintari eskudunen

peatones o entradas reservadas a viviendas, comercios o vehículos.

- Serán responsables en todo momento de la calidad sus productos, sin que puedan ocasionar riesgos para la salud o seguridad de quienes lo consuman, supongan fraude en la calidad o cantidad, sean falsificados, no identificados o incumplan los requisitos mínimos para su comercialización.
- Si se colocara algún tipo de cartel en el puesto el mismo deberá redactarse en euskera o en las dos lenguas oficiales, respetándose tanto el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, como el Plan vigente de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Tolosa. Asimismo, los mensajes utilizados a la hora de realizar estos carteles deberán respetar la normativa de igualdad entre mujeres y hombres, utilizando lenguaje inclusivo no sexista y respetando el contenido del Plan de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

**10. Incumplimiento:** El incumplimiento de los apartados recogidos en el artículo ocho conllevará la retirada del correspondiente permiso de instalación del puesto y la imposibilidad de participar en la feria el año 2027.

**11. Responsabilidad:** la organización no se hace responsable de:

- Daños, pérdidas o robos de materiales de los participantes.
- Incidentes derivados del incumplimiento de la normativa vigente por parte de los expositores.

**12. Interpretación:** la solicitud para la instalación de un puesto, supone la total aceptación de las presentes condiciones. Cualquier duda sobre su interpretación, corresponderá resolver al área de Ferias.

**13. Derogación de las bases:** las presentes bases quedarán sin efecto si la feria ITSASKI no pudiera celebrarse por fuerza mayor, por decisión



TOLOSAKO  
UDALA

2026MAZB0004

erabakiz edo behar bezala justifikatutako bestelako inguruabarren ondorioz, eta horrek ez du kalte-ordainerako eskubiderik sortuko.

de las autoridades competentes u otras circunstancias debidamente justificadas, sin que ello genere derecho a indemnización.

Tolosan, 2026ko apirilaren 21ean, Antolakuntza Lan Esparruko zinegotzi delegatua, Cristina Peláez Errazquin.

En Tolosa, a 21 de abril de 2026, la concejala del Ámbito de Trabajo de Organización Cristina Peláez Errazquin.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026MAZB0004-Iragarkia/Anuncio (TOLOSAKO UDALA)